

FUNTSEZKO JARDUERAK


Jolas-parke ekologikoa produktu berritzaile bat da. Ordu asko lan egin ondoren, diseinu apropos bat egitea lortu dugu, gainera oso erakargarria dena. Funtsezko jarduera diseinua da, printzipioz oinarrizko diseinu bat egin dugu baina denborarekin aldaketak egingo ditugu itxura hobe bat izan dezan eta parkearen funtzionamendua hobetzeko. Gure parkeak behar bezala funtzionatzeko hainbat eginbide jarraitu ditugu.

Hasteko, parkeak edukiko dituen elementuak zerrendatuko ditugu.

- **Kulunkak.** Bi motatako kulunkak egongo dira, batzuk 2-4 urte bitarte eta besteak 5-10 urte bitarte zuzendurik daudela. Hauek egitura berezi bat edukiko dut, mugimenduarekin sortzen den energia pilatzeko.




- **Txirristak.** 3 txirrista eredu daude. Banakako txirrista luze eta zuzena, banakako txirrista itxi eta kiribildua eta txirrista hirukoitza. Guztiak energia biltzen duten plakak izango dituzte txertatuak



- **Tirolina.** Tirolina modelo bakarra aurkeztu dugu. Tirolina gaztelu itxura duen parkearekin bat doa. Gazteluko dorrean hasiera eta gazteluaren sarreran amaiera izango du. Energia biltzen duen metalezko hari batez osatuta dago eta higidurarekin sortutako energia biltzen du.



- **Zalditxoak.** Bi zalditxoz osatuta dago eta erdialdean malguki bat du. Malgukiaren egitura berritzailea da eta energia biltzen du.



- **Birakaria.** Birakaria parkeko elementurik garrantzitsuenetako bat da, bere egitura oso sinplea izan arren. Energia asko pilatzen du. Hau lau haurrentzako disenaturik dago, haien indarrarekin birak ematen dituelarik. Biren abiadura geroz eta handiagoa denean, bildutako energia kantitatea handituko da.





Jolas-parkeko elementuak egiten dituen enpresarekin kontaktatu ondoren, 3 parke modelo egin ditugu; handia, ertaina eta txikia. Bezeroak, telefonoaren, emailaren, web orriaren bitartez edo oiartzungo almagenera etorri ezker jar daitezke gurekin harremanetan. Gurekin hitz ondoren, beraien nahiak asetzeko ahalmenak egingo ditugu, proiektu bat eskainiz haien nahien arabera. Bezeroarekin dena adostu ondoren, prozesuari hasiera emango diogu.